

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Esaren segurtasuna eta langabezia izan dira Barkos Lehendakariak eta Zangozako alkateak egindako bileraren gai nagusiak

Potasa-meatzearen proiektuari eta osasunari nahiz hezkuntzari buruz ere hitz egin dute

Martes, 06 de octubre de 2015

Esako urtegiaren segurtasuna eta eskualdeak duen langabezia-tasa izan dira Nafarroako lehendakari Uxue Barkosek eta Zangozako alkate Angel Navallasek gaur goizean egindako bileran aztertutako gai nagusiak. Bilera hori Foru Komunitateko Gobernuako arduraduna merindadeko alkateekin egiten ari den bilera-errondaren barnean sartzen da; bilkura horretan, gainera, potasa-meatzearen eta osasunari nahiz hezkuntzari lotutako gaiak ere jorratu dituzte, besteak beste.



Barkos Lehendakaria, Angel Navallasekin.

Lehendakariak azaldu duenez, Zangozako Merindadeak dituen erronkak eta Nafarroako Gobernuaren konpromisoak guzatzeko unea da. Esako segurtasunari dagokionez, Uxue Barkosek ezaugarri horietako obra batek behar dituen segurtasun-neurri guztiak izan ditzala eskatu du. Zonalde horretan dagoen langabeziari dagokionez, Nafarroan gehien zigortutako eskualdetako bat, enplegua sortzeko beharra azpimarratu du. Hezkuntzari eta osasunari lotutako gaiak jorratzea ere aurreikusita zutela aurreratu du.

Zangozako alkate Angel Navallasek, berriz, Barkos Lehendakariari eskerrak eman dizkio bilerarako deitu izanagatik, eta esan du Esako obren kontua lehentasun gorenekoa dela. Potasa-meatzearen proiektuaz ere hitz egin du, eta proiektu horri alegazio batzuk aurkeztu dizkiola adierazi.